

**EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SA**  
**AKZIODUNEN OHIKO BATZAR NAGUSIA – AKTA**

Lekua: Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea.

Data eta ordua: 2003ko ekainaren 26a, goizeko 10:00etan hasita (bigarren deialdian).

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Ohiko Batzar Nagusi honetarako deialdia egin zuen. Estatutueta agindutakoari jarraituz deialdia 2004ko maiatzaren 31ean BORMEren 103. zenbakian eta 2004ko ekainaren 6an BERRIA egunkarian argitaratu zen. (Hau ziurtatzen duten agiriak akta honi erantsiko zaizkio). Honela dio deialdiak:

**EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SA**  
*Akziodunen Ohiko Batzar Nagusirako Deialdia*

*Egun indarrean dagoen legeari eta estatutueta araudiari jarraiki, Administrazio Kontseiluak, aho batez, sozietatearen Akziodunen Ohiko Batzar Nagusira deitzea erabaki du, Andoainen egingo dena, Gudarien etorbideko 29an, Marin Ugalde Kultur Parkean, 2004ko ekainaren 25ean, goizeko 09:00etan, lehen deialdian, edo 2004ko ekainaren 26an, goizeko 10:00etan, bigarren deialdian, ondoren zehazten diren gaiak aztertu eta dagozkion erabakiak hartzeko.*

**GAI ZERRENDA**

- 1.- Urteko kontuak (Balantzea, Irabazi eta Galeren Kontua eta Memoria), Kudeaketa informea eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketaren azterketa eta onarpena, hala badagokio, eta emaitzaren gaineko proposamena. Hau guztia 2003ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari dagokio.*
- 2.- Sozietateak parte hartzen duen enpresen egoerari buruzko informazioa.*
- 3.- 2004rako kudeaketa planaren eta aurrekontuen aurkezpena.*
- 4.- Kapital handitzea. Sozietate Anonimoen Legearen testuko 153.1 artikulua ezartzen dituen neurrietan, Administrazio Kontseilua baimentzea, hurrengo bost urteen barruan kapitala handitzeko aukera izan dezan. Kontuan hartuta primarekin edo gabe izan litekeela, aurreikusi behar dela kapitalaren harpidetzea kopuru osora iritsi gabe gera daitekeela, aldi batean edo gehiagotan eta egoki ikusten den kopuruan (gehienez ere baimena ematen denean duen kapitalaren erdia) egiteko aukera izango duela. Ahalmena emango zaio Administrazio Kontseiluari Estatutu Sozialen 5. artikulua alda dezan. Eta Administrazio Kontseiluaren eskuetan utziko da lehentasuneko erosketarako eskubidea arautzea.*
- 5.- Sozietatearen Auditoreak izendatzea.*
- 6.- Kontseilarien kopurua aldatu eta kontseilari berriak izendatzea.*
- 7.- Galde-eskeak. Hainbat gai.*
- 8.- Ahala ematea Administrazio Kontseiluko Lehendakariari eta Idazkariari, bietako batek Akziodunen Batzar Nagusi honek hartutako erabakiak publiko egin ditzan.*
- 9.- Batzarraren aktaren idazketa, irakurketa eta onarpena, hala badagokio. Edo, horretarako ikuskatzaileak izendatzea.*

*Deialdi hau egiten den unetik, Batzarrean onartzeko aurkeztuko diren agiriak eta behar diren informeak akziodunen eskura daude egoitza sozialean.*

*Akziodunen eskura dago sozietatearen web orrian ([www.ektsa.net](http://www.ektsa.net)), besteak beste, deialdiaren testu osoa eta gai zerrendaren 4. puntuari dagokion Administratzaileen informea.*

*Edozein informazio osagarri eskuratzeko edo Batzarrean eztabaidatzeko gaii buruzko argibideak jasotzeko, akziodunek Akziodunaren Arreta Zerbitzura jo dezakete,*

Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkera agertuz, 943304345 telefonora dei eginez, edo posta elektronikoa erabiliz [akziodunak@ektsa.net](mailto:akziodunak@ektsa.net) helbidera idatziz.

Akziodunaren Arreta Zerbitzuaren harrera ordutegia hau da: astelehenetik ostiralera, goizeko 09:30etik 13:30era eta arratsaldeko 16:30etik 19:30era.

Andoainen, 2004ko apirilaren 30a. – Administrazio Kontseiluko Idazkaria, Joanmari Larrarte Telletxea–

Estatutuek arautzen duten moduan, Batzarreko lehendakaria Jose Antonio Lizarribar jauna izan da eta idazkaria, berriz, Joan Mari Larrarte jauna, Administrazio Kontseiluko lehendakari eta idazkaria hurrenez hurren. Halaber, batzarreko mahaia osatu dute Administrazio Kontseiluko agertutako gainontzeko kideek, Patxi Noblia lehendakariordeak eta Adolfo Arejita, Ane Agirregomezkorta, Pello Zabala eta Jose Mari Sors bokalek.

Batzarra hasi aurretik, idazkariak bertaratutako en zerrrenda osatu du. Bertan bilduriko akziodunen izenak eta ordezkaturiko akziodunen eta haien ordezkarien izenak ageri dira; eta bildutako en eta ordezkaturiko akzioen kopurua ere agertzen da. Zerrrenda egiteko CD-a erabili da eta idazkariak eta lehendakariak gainean sinatu dute eta prezintatua gelditu da, zerrrenda batzarreko aktari erantsiko zaio.

Bertaratuen zerrrendaren arabera, akziodunek zuzenean ordezkaturiko kapital kopurua % 4,1 da, ordezkaturiko bitartez ordezkaturiko kapital kopurua, berriz, %22,08 da. Guztira batzarrean, kapitalaren %26,18 izan da ordezkaturiko. Batzarra bigarren deialdian osatu da, lehenengoan beharrezko quorumik batu ez zelako.

Lehendakariak Ohiko Batzar Nagusia eratuta dagoela erabaki du eta gai zerrrendan aipaturiko puntuak eztabaidatu eta erabaki dira batzar honetan.

Batzarraren hasieran, Idazkariak enpresa taldearen berri eman du eta gaiak aztertzeari ekin zaio. Ondoren zehazten dira hartutako erabakiak.

### **1.- Urteko kontuak (Balantzea, Irabazi eta Galeren Kontua eta Memoria), Kudeaketa informea eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketaren azterketa eta onarpena.**

Lehendakariak eta Idazkariak gaia aurkeztu dute eztabaidara. Eztabaidaren ondoren onartuta geratu dira 2003ko Kontuak (Balantzea, Irabazi eta Galeren Kontua eta Memoria) eta Kudeaketa.

Eztabaidaren ondoren, erabakitze pasada eta, aho batez onartu du Batzarrak. 2003ko irabaziak legezko erreserbetan jasoko dira.

### **2.- Sozietateak parte hartzen duen enpresen egoerari buruzko informazioa.**

Lehendakariak eta Idazkariak EKTko enpresek parte hartzen duten beste enpresen berri eman dute, akziodunek informazioa izan dezaten. Gai hau informatiboa izan da, eta akziodunen galderei erantzun ondoren, bukatutzat eman da eztabaida.

### **3.- 2004ko Kudeaketa Planaren eta aurrekontuen aurkezpena.**

Lehendakariak eta Idazkariak 2004ko Kudeaketa Plana eta aurrekontuak aurkeztu dituzte, enpresa taldearen urteko asmo eta helburuen berri emanez. Era berean, 2004ko maiatzaren 31ko finantza egoeraren berri ere eman dute.

### **4.- Kapitala handitzeko aukera zabaldu eta horretarako baimena ematea Administrazio Kontseiluari.**

Lehendakariak eta Idazkariak konpainiaren kapitala handitzeko proposamena aurkeztu dute eta akziodunei Administrazio Kontseiluak 2004 maiatzaren 21ean idatziz emandako informea azaldu dute. Aurkezpenaren ondoren, eztabaidara pasa da eta akziodun batek zalantzak agertu baditu ere (bost urteko epea gehiegizkoa jotzen zuen), bozketarik ez dela behar adierazi du eta Batzarrak aho batez onartu du, Administrazio Kontseiluari kapitala handitzeko baimena ematea, beti ere aurkeztutako informean zehaztutako neurri eta mugekin. Informea aktari atxikiko zaio eta erabakia hau da:

- Handitzea proposatzen den kopurua: Egungo kapital soziala 4.595.900 eurokoa izanik, kapitala gehienez ere 2.000.000 euro handitzea erabakitzen da.
- Administrazio Kontseilua baimentzea: Legeak eta estatutu sozialen 10. artikulua esaten dutenari jarraiki, Administrazio Kontseiluari baimena ematen zaio, ahalmena izan dezan, Batzar Nagusiari galdera egin gabe, kapital soziala handitzea egin dezan aldi batean edo gehiagotan eta egoki deritzon kopuruan, beti ere ezarritako mugarekin.
- Administrazio Kontseiluaren baimenaren mugak: a) Ekarpen motak.- Legeak dioen bezala, ekarpen guztiak dirutan egingo dira eta b) Baimenaren epea. Administrazio Kontseiluari emandako baimenak gehienez 5 urteko epea izango du, Batzarraren erabakiaren unetik hasita.
- Handitzearen kopurua: Ezarritako kopurua betetzen ez bada, Administrazio Kontseiluari baimena ematen zaio, ezarritako kopurua gehienekoa dela kontuan hartuta, kapital handitzea lortutako kapitalarekin itxi dezan.
- Lehenetsuneko harpidetza: Administrazio Kontseiluak erabakiko ditu lehenetsuneko harpidetzaren eskubiderako baldintzak, aukera hau ezin duela baztertu kontuan hartuta.
- Estatutuen egokitzapena: Erabaki honek Estatutu sozialen 5. artikulua eragotziko du, kapital sozialari eta akzioen zenbaki eta ordezkaritzari dagokiona, aldaketa horretarako baimendua gelditzen da Administrazio Kontseilua.

## **5.- Sozietatearen Auditoreak izendatzea.**

Lehendakariak eta Idazkariak sozietatearen auditore Amadeo Cazenave izendatzea proposatu dute, hurrengo bost urterako. Batzarrak aho batez onartu du izendapena.

## **6.- Kontseilarien kopurua aldatu eta kontseilari berriak izendatzea.**

Lehendakariak Administrazio Kontseilua 11 lagunekoa izatea proposatu du eta 3 lagun berri proposatu ditu kontseilari izateko, alde batetik Rebeka Arraras Paños, eta bestetik EKT enpresa taldeko bi langile, Gotzon Hermosilla Bermejo eta Elene Barandiaran Amillano. Batzarrak aho batez onartu du kontseilarien kopurua eta aurkeztutako izendapena. Izendatuek bileran parte hartzen dute, kargua onartzen dute, eta legeak ezartzen duten inongo bateraezintasunik ez dutela adierazten dute. Horrenbestez, ondoko hauek osatuko dute aurrerantzean Administrazio Kontseilua:

- Jose Antonio Lizarribar
- Patxi Noblia
- Joanmari Larrarte
- Adolfo Arejita
- Xabier Kintana
- Ane Agirregomezkorta
- Pello Zabala
- Joxemari Sors
- Rebeka Arraras
- Gotzon Hermosilla
- Elene Barandiaran

## **7.- Galde-eskeak.**

HITZA-k beste eskualde batzuetara zabaltzeko (Araba eta Nafarroa) aukera aztertu den galdetu du akziodun batek. Administrazio Kontseiluak bide honetan jarraitzeko bere gogoaz azaldu du, baina aurrera begira zer lotuta ez dagoela adierazi du; eskualde batzuetatik eskaerak badaudela baina erabakirik ez dagoela esan du Administrazio Kontseiluak.

Beste akziodun batek hiru gairen inguruko zalantza agertu du: astelehenetan ateratzeko aukera, BERRIA-k erabiltzen duen euskara maila eta banaketarekin zenbait zonaldeetan dauden arazoak. Gaiak aztertzeko borondatea azaldu du Administrazio Kontseiluak

Akziodun batek Bilgune Feministak estilo liburu kaleratu duela iragarri du genero ikuspegitik nola idatzi behar den gomendioak egiteko. BERRIA-ko ordezkariak beraiekin bildu ote diren galdetu du akziodun batek. BERRIA egunkariaren zuzendariak erantzun dio bilera bat egin dela eta lanean jarraituko dutela esanez.

Etorkizunean normalizatuko den euskara BERRIA-rena dela esan du beste akziodun batek.

Autokritika egin behar dela dio beste akziodun batek. 65.000 irakurle ditu berriak eta irakurle potentzialak gehiago dira. Horretaz ere pentsatu behar dugu.

Akziodun batek egindako proposamenari erantzunez, batzarrak erabaki du Iñaki Uriaren askatasuna eskatzea, eta biharko BERRIAN horrela agertzea.

## **8- Ahala ematea.**

Lehendakariak Administrazio Kontseiluko Lehendakariari eta Idazkariari Batzar Nagusi honetako erabakiak publiko egiteko ahal ematea proposatu du. Batzarrak aho batez erabaki du Lehendakariari eta Idazkariari ahal ematea.

## **9- Akta onartzea.**

Idazkariak Batzar honetako akta osatu eta irakurri egin du Batzarraren aurrean. Akta aho batez onartuta geratu da, lehendakariak eta idazkariak sinatu dute sozietatearen akta liburuan jasota gera dadin,

Andoainen, 2004ko ekainaren 26an.

IDAZKARIA

Joan Mari Larrarte Telletxea

LEHENDAKARIA

Jose Antonio Lizarribar Exposito